

Henning Mankell
Bidaia munduaren amaierara
Itzultzailea: Juan Mari Mendizabal
Erein
Perzebal bilduma
Donostia, 2005

Haurtzaroaren amaierarako bidaia

Henning Mankell idazle suediar ezagunak Joel Gustafsson gaztearen inguruan idatzitako tetralogiako azken emanaldia da eleberri hau. Erein argitaletxeak 2001ean *Izarretara bidean zihoan txakurra* hura argitaratu zuenetik lau urte joan dira, eta Joelek (gogora dezadan eleberriok 1950eko hamarkadako Suedian kokatuta daudela) hamabost urte bete ditu eta, horrenbestez, derrigorrezko hezkuntza amaitu du iparraldeko herri horretako orduko hezkuntza sistemaren arabera. Bi mugarri horiek, hamabost urteak eta eskolaren amaiera, erabakigarri suertatuko dira Joelen kontzientzian. Izan ere, tetralogiaren eremuan, laugarren liburu hau aurrekoetan planteatutako korapiloaren askapena dela esan daiteke. Hitzaurretik bertatik, aurreko liburuetako pertsonaiak eta gertakizunak gogora ekarriko direla adierazten du egileak, hori dena amaiera handi baterako prestaketa gisa.

Lehen aldiz, Joelek erabaki garrantzitsuak hartzen ditu: iparraldeko herrixka izoztua lehen aldiz utzi du; oso txikia zela aitarekin utzita alde egin zuen amarekin berriro elkartzera joango da; betidanik amets izandako marinel itsasoratzea lortu du; sexuan iniziatu da...

Eleberria oso ondo idatzita eta bikain bideratuta dago, eta lauetan onena da, nire ustez. Irakurleak emozio handiko pasarteak topatuko ditu, hala nola, amarekin berriro elkartzen den unea, itsasoan lanean hasteko erabakia hartutakoan semeak aitari (!) bakarrik moldatzeko ematen dizkion aholkuetako elkarrizketa, eta, batez ere, aitaren azken egunetako kontakizuna oso bereziki hunkigarria da.

Gero, aurreko guztiaren kontrapuntu gisa, Joelek azken aldiz egingo dituen gauzen narrazioa dator, paralelismo lazgarrien bidez emana: aitaren azken bidaiaren lekukoa izan zen, etxe zaharretik azken aldiz irten zen eskaileretan behera: "Azken maila. Azkeneko aldiz. Orain ezin zuen atzera egin. Beste ate bat irekiko balu bezala zen, eta aldi berean bere haurtzaroko atea astiro eta kirrinka itxiko balitz bezala" (248. or.)

Eleberri hau irakurtzea biziki gomendatzen dudana era berean, haatik, oharpen bat ere egingo dut: kontu! inork ez dezala kontsolamendurik bila liburu honetan, ez baitu

aurkituko; Joelen inimizia eta heldutasunera iristea era poetiko bezain biluztuan, inolako amore ematerik gabe kontaktzen baita; azken batean, hau benetako literatura besterik ez da.

Manu Lopez Gaseni